



OINARRIZKO ELIKAGAIEN BEHARRA



1. GOSEA MUNDUAN

FAO, 2012ko txostenaren arabera:

- Gutxi gorabehera munduan 870 milioi pertsonak ez dute jaten osasuntsu egoteko adina. Honek esan nahi du, munduan zortzi pertsonatik bat egunero gosez oheratzen dela.
- Gosea da osasunaren arrisku nagusienetakoa. Jende gehiago hiltzen da gosez HIES-a, malaria eta tuberkulosia gaixotasunek eraginda baino.
- Lurralde azpigaratuetan 5 urtetik beherako hiru haurretatik baten heriotza (2,6 milioi) goseak eragindako desnutrizioagatik gertatzen da.
- Haur baten lehen 1.000 egunak, hau da, haurdunalditik 2 urte bitartekoak, oso garrantzitsuak dira. Epealdi horretan desnutrizioa jasaten dutenek arrisku handia dute atrofia fisikoa eta buruko atrofia sufritzeko.
- Lurralde azpigaratuetan 6 umetik batek ez du behar adineko pisua.
- Munduan 4 umetik batek hazteko arazoak ditu. Lurralde azpigaratuetan proportzioa igo egiten da, hau da, 3 umetik batek ditu hazteko arazoak.
- 2050. urtean 24 milioi haur gehiagok izango dute gosea, klima aldaketa eta horrekin zerikusia duten beste faktoreek eraginda.

2. OINARRIZKO ELIKAGAIEN BEHARRA AZPEITIAN

- Azpeitiko herriak 14.579 biztanle ditu 2013. urteko datuen arabera. Horietatik 607k oinarrizko elikagaien beharra dute. Guztira, 188 familia dira, horietatik 122 atzeritarrik; hau da, %64,89 familia atzerrian jaiotakoak dira (agian, semea-alaba batzuk bertan jaiotakoak dira). 607 horietatik 30 pertsonak 2 urte baino gutxiago dituzte, 118k 2-8 urte bitartean, eta 459 lagunek 8 urtetik gora.



